Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
getxokultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ HORNITZEKO IRAKASKUNTZAN ERABILTZEKO PANTAILA MUGIKOR INTERAKTIBOAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen arabera egiten den kontratuaren xedea da irakaskuntzarako zazpi pantaila mugikor interaktibo hornitzea eta instalatzea (Romoko Kultur Etxean beharrezkoak dira).

2. DESKRIBAPENA, EZAUGARRIAK ETA GEHEINEZKO AURREKONTUA

Irakaskuntzarako zazpi pantaila interaktibo behar dira, dagokien gurpil-euskarriarekin, mugitu ahal izateko.

Pantailaren ezaugarriak:

Tamaina: 65”

Pantaila interaktiboa led 4K W50 puntu - Android: 20puntu

Android sistema integratua, 13.0 bertsioa

Dsitira 450 cd/m2 Kontrastea 5000:1

Bozgorailu integratuak 2 x 20w Bateragarria Windows /11/10/ 8/ 7 / Bista / XP - Mac -Linux

8Gb RAM – 296 Gb (barne memoria); Wifi 6; BLUETOOTH 5.2

mikrofonoak barne;

USB.c konexioa goian, kamara jartzeko;

playstore barne; Google-n natiboa den EDLA ziurtagiriarekin

Pantaila guztiek eman behar dute aukera gela batetik bestera lekualdatuak izateko, bakoitzari dagokion euskarriarekin.

Webcam 4K kamera monitorea integratzeko; USB-c konexioak; 120º ikuseremua; autoframing txertatua; zarata murrizteko aukera; ANR/ACG mikrofonoa

Euskarriaren ezaugarriak:

Oinarrizko gurpildun euskarria erretiluarekin eta gurpiletan balaztekin (gutxi gorabehera: 1,50cm.x 80 cm.)

Pantailaren eta euskarriaren gehienezko prezioa unitate bakoitzeko (BEZa kanpo) hau da: 1725 euro

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
getxokultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

3.- ESKAKIZUN OROKORRAK ETA HORNIDURA EPEAK

Kontratistak nahitaez entregatu beharko ditu hornitu, garraiatu eta deskargatu beharreko ondasunak, bai eta instalazioa, doikuntza eta funtzionamendu-proba ere. Era berean, hornitutako ondasunen funtzionamenduari buruz, gutxienez, bi orduko prestakuntza emateko betebeharra ezartzen zaie horien erabileraren arduradunei.

Kontratistaren kontura izango dira instalaziorako beharrezkoak diren bitarteko eta elementu osagarriak, bai eta norbera babesteko beharrezkoak diren ekipamenduak ere.

Esleipenduna kontratuaren arduradunaren esku jarriko da koordinazioa ahalik eta gehien errazteko eta, bereziki, lan-arriskuen prebentzioaren arloko enpresa-koordinazioari dagokionez.

Esleipendunak konpromisoa hartuko du kontratua sinatu eta hiru hilabeteko epean hornidura entregatu eta instalazioak amaitu dituela. Prestakuntzaren data bi alderdiak ados jarrita adostuko da. Muntaia eta instalazioa kontratuaren arduradunak ezarritako ordutegietan egingo da.

Gehienez ere, hiru urteko berme-aldia ezarri da, ondasunak entregatu eta instalatzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita. Berme horretan sartuko dira material akastunak, eskulana eta joan-etorriak ordezteko gastu guztiak.

Produktuak entregatzean, esleipendunak dokumentazio teknikoa, fabrikazioko identifikazio-agiriak eta berme-agiriak aurkeztuko ditu, bai eta, hala badagokio, emandako erabilera-elementuak erabiltzeko eskuliburuak ere.

Egikaritze-baldintza berezia: ingurumen-irizpideak erabiltzea instalazio-zereginetan, bereziki sortutako enbalaje-materialen hondakinak bereizi eta gaika biltzeari dagokionez.

4.- AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

Gehienez ere 100 puntu, honela banatuta:

A) ESKAINTZA EKONOMIKOA: 76 puntu, gehienez ere.

Aurkeztutako eskaintzen balorazio ekonomikoa egingo dute, kasu bakoitzean egokia den BEZa kontuan hartu gabe.

Pleguetan agertzen den gehieneko puntuazioa eskaintza baliagarritzat hartzen direnen artean onenari emango zaio.

Gainerako eskaintzei honako formula aplikatuko zaie:

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
getxokultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Oinarrizko puntuazioa= Gehienezko puntuazioa x eskaintza onena
Aztertu beharreko eskaintza

Balorazio ondorioetarako lizitazio mota 0 (zero) izango da. Eskaintza baliodunik onena 0 (zero) baldin bada, 0,01 balioa kontuan hartuko da balorazioa egiteko.

b) BERME-ALDI GEHIGARRIA: Berme-aldiaren igoera baloratuko da, hasierako baldintza berberetan, berme-hilabete gehigarri bakoitzeko: puntu 1 eta, **gehienez ere, 24 puntu.**